

Eskaera egiteko epea

- **Lehen eguna:** 2025/05/08an
- **Aurkezteko azken eguna:** 2025/06/30ean

Norentzat da?

- Enpresa handi, txiki eta ertainentzat, ezaugarri hauek dituztenak: industrialak eta produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzuetaoak; ingurumenaren babes-maila hobetzea dakarten jarduketak egiten dituztenak deskarbonizazioaren bidez haien ekoizpen industrialeko instalazioetan (berriak eta/edo bazeudenak), eta, hortaz, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten dituztenak.

Ohiko galderak

Zer baldintza bete behar dituzte programa honen onuradun diren enpresek?

Enpresa onuradunak industrialak eta produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzuetan diharduten enpresa handi, txiki eta ertainak (ETE) izan daitezke, baldin eta laguntzaren xede diren inbertsioak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badira.

Zer enpresa-mota geratzen da deialdi honetatik kanpo?

- Euskadiko Sektore Publikoaren parte diren erakundeak.
- Energia sortzeko eta banatzeko enpresak.
- Zerbitzu energetikoen enpresak.
- Armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea helburu duten enpresak.

Onetsitako aurrekontutik, zer ehuneko lagunduko da diruz?

- Mikroenpresa eta enpresa txikia: % 30.
- Enpresa ertaina: % 25.
- Enpresa handia: % 20.

Laguntzaren zenbatekoa % 2,5 handituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerralde Zabaldutan dauden inbertsioetan.

Eskaera bakoitzerako gutxieneko inbertsiorik al dago?

Bai, enpresek 100.000 euroko gutxieneko inbertsio onartua egin beharko dute.

Deialdira eskaera bat baino gehiago aurkeztu daiteke?

Ez. Betetako eskaera bakarra izan beharko da enpresak egitea aurreikusitako jarduketa guztietarako.

Deskarbonizazio Industrialaren programan, bi proiektu aurkez daitezke eskaera bakar batean?

Bai, eta gainera beharrezkoa da enpresak aurreikusitako inbertsioen totala aurkeztea eskaera bakar batean.

Programa honetan diruz laguntzen den gehieneko zenbatekoa, proiektu bakoitzerako da?

Ez, gehieneko zenbatekoa enpresako eta/edo enpresa-taldeko da, eta muga 1.500.000 euro dira.

Zer dirulaguntza-mota da?

Deialdi hau norgehiagokaren prozeduraren bidez ebatziko da, eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da.

Noiz aurkeztu behar dut eskaera, onartu dadin?

Eskaeraren xede den proiektua hasi aurretik.

Zein da programa honetan aurkeztutako proiektua egiteko epea?

Lanak eskaera egiteko egunetik aurrera hasi beharko dira. 2025ean hasi beharko dira, eta, gehienez, 2026ko abenduaren 31n amaituko dira.

Proiektua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik hasi bada, eskaera izapidetzeko aurkez daiteke?

Ez, programan aldeztu aurretik aurre-eskaera bete ez bada.

Zeintzuk dira deialdiaren bidez lagun daitezkeen dirulaguntzak?

Instalazio industrialaren deskarbonizazioaren bidez berotegi-efektuko gasak zuzenean murriztu edo ezabatzeari zuzendutako eta enpresaren aktiboari gehitutako aktibo finkoak lagunduko dira diruz. Hurrengo kategoriatako batean sartuta egon beharko dira:

- 212 Instalazio teknikoak
- 213 Makinak
- 215 Beste instalazio batzuk
- 217 Informazio-prozesuetarako ekipoa

Erregai fosilak (gas naturala barne) erabiltzen dituzten ekipotan, makinetan edo prozesu industrialetan egindako inbertsioetan, dirulaguntza soilik dagoeneko dauden ekipoen, makinaren edo ekoizpen industrialen ingurumen-babes maila hobetzen duten **osagai gehigarriak instalatzeko** emango da, baldin eta inbertsio berriak ez badakar ekoizpen-gaitasuna areagotzea ezta erregai fosil gehiago kontsumitzea.

Zer izan behar du laguntza honetan aurkeztutako proiektuak?

Informazio teknikoari dagokionez, eskaerak inbertsioen memoria xedatua eta eskatzaileak bete beharreko kalkulu-orri bat izan beharko du, eta, bestetik, administrazio-izaerako informazioari dagokionez, programaren oinarrietan adierazitakoa.

Zer izan behar du programan aurkeztutako proiektuaren memoria teknikoak?

- Inbertsioaren deskribapena eta hura egiteko epeak
- Produktuaren eta ekoizpen-prozesuaren azalpena, inbertsioaren aurretik eta ondoren
- Emisioen murrizketa kalkulatzeko erabilitako kontsumo-balioen justifikazioa
- Ekonomia- eta finantza-planaren xehetasuna
- Inbertsioaren aurretiazko justifikazio-txostenak, hala nola deskarbonizazio planak, auditoretza energetikoak, karbono-aztarnaren kalkulua...

Diruz lagun daitezkeen jarduketa-motak:

Industria-ekoizpenerako instalazioarekin lotutako aktibo finkoak erostea, honako kategoria hauetako batean sartuta daudenak:

- Ekoizpen-prozesuarekin zuzenean lotutako makinerietan egindako inbertsioak.
- Lehendik dagoen ekoizpen-prozesuko osagai gehigarrietan egindako inbertsioak.
- Lehendik dauden ekoizpen-instalazioekin lotutako inbertsioak.
- Inbertsio berriak instalazioetan edo prozesuen ildoetan. Kasu honetan, laguntza-eskaerarekin batera osatzen duten jarduketa bakoitzaren CO₂ emisio baliokideen zehaztapena aurkeztu beharko da, aurreikusitako azken egoeran, baita erreferentziazko oinarritzko proiektu bat ere.
- Instalazio elektriko berrietako inbertsioak eta instalazio zaharren egokitzapena, diruz lagundu daitezkeen jarduketaren ondorioz onar daitezkeen gehieneko potentzia handitzeagatik.
- Honako hauei laguntzen dieten proiektuen bidezko inbertsioak:
 - o Lehengai jasagarri eta/edo bigarren mailako lehengai berriak erabiltzea (birziklatuak edo beste prozesu baten azpiproduktua)
 - o Industria-hondakinak kudeatu eta/edo balorizatzea
 - o Hozgarriak eta beste gas fluoratuak ordeztzea

Zer izan behar du programara aurkeztutako proiektuaren kalkulu-orriak?

Eskatzaileak bete beharreko kalkulu-orriaren bidez, enpresek ekidindako emisioak kalkulatu ditzakete, eta honako informazio hau izan behar du:

- Inbertsioaren xede den prozesuan erabilitako erregai, energia-iturri, lehengai, hondakin eta hozgarriak.
- Inbertsioaren aurretik eta ondorengo egoerari dagozkion kontsumoak.
- Dirulaguntza eskatzen den inbertsio hautagarriaren balioa.
- Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztearekin zuzenean lotuta dagoen inbertsio hautagarriaren kostuen efizientzia.

Ekoizpen-establezimendu, -instalazio eta/edo -prozesu berrietarako inbertsioen proiektuen kasuan, zein da inbertsioaren aurreko kontsumoaren datua, oraindik existitzen ez bada?

Oraindik existitzen ez diren ekoizpen-establezimendu, -instalazio edo-ildo berrietarako inbertsioen kasuan, inbertsioaren aurreko egoerari buruz sartu beharreko datuak erreferentziatzeko aktiboei buruzkoak izango dira.

Ekoizpen-establezimendu, -instalazio eta/edo -prozesu berrietarako inbertsioen proiektuen kasuan, eskaeran zer bait gehiago aurkeztu behar da?

Laguntza-eskaerarekin batera osatzen duten jarduketa bakoitzaren CO₂ emisio baliokideen zehaztapena aurkeztu beharko da, aurreikusitako azken egoeran, baita erreferentziatzeko oinarritzko proiektu bat ere. Egoera bien arteko aldea kalkulatu ahal izan beharko da, proiektuaren deskarbonizazio-ahala zehaztu ahal izateko.

Zein dira eskaeretarako ebaluazio-irizpideak?

Honako irizpide hauen arteko haztapena egingo da:

- Inbertsio hautagarriaren efizientzia kostuak (azken notaren % 25).
- CO₂ emisioen tonen murrizketaren baliokidea, %-tan (azken notaren % 40).
- CO₂ emisioen tonen murrizketaren baliokidea, zifra garbian (azken notaren % 25).
- Memoria teknikoaren kalitatea (azken notaren % 10).

Programa hau bateragarria da beste erakunde batzuen laguntzekin?

Bai, baldin eta laguntza guztien baturak Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 36. artikuluan xedatutako muga gainditzen ez badu, Erregelamenduaren eta Batzordearen 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak egindako azken aldaketan; dirulaguntza horien berri eman beharko zaie Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasunaren Zuzendaritzari.

Proiektua finantza-errentamenduaren bidez finantzatu daiteke?

Bai, baldin eta, laguntza jaso dezakeen inbertsio gisa hartzeko, esplizituki jasotzen badu kontratua amaitzean erosteko aukera dagoela, eta hori betetzeko konpromisoa jaso beharko da, alde biek sinatuta.

Noiz egiten da Deskarbonizazio Industrialerako programaren dirulaguntzaren ordainketa?

Ordainketa honela banatuko da:

- Lehenengo ordainketa, aldez aurretik, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 5ekoa, laguntza onetsi ondoren egingo da.
- Gainerako ordainketetarako, enpresa onuradunak egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez honako atal hauek bete beharko ditu:
 - o Dirulaguntzaren xede diren egindako inbertsioen adierazpena.
 - o Fakturen koadroa, inbertsioaren gastuen eta zenbatekoen zerrenda sailkatuarekin (BEZa kanpo).

- Adierazpen horren bidez, dirulaguntza eman ostean, onuradunak ez du berreskuratzeko agindurik izango, baldin eta Europar Batasunaren Batzordeak erabakitzen badu laguntza legez kontrakoa dela eta ez dela bateragarria barneko merkatuarekin.
- Enpresaren beraren baliabideen zenbatekoaren, jatorriaren eta aplikazioaren adierazpena; baliabideek gutxienez inbertsioaren zenbatekoaren % 25 osatu beharko dute.

Zein da programa honen likidazio-eskaera aurkezteko epemuga?

2 hilabete, egiteko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.